
AELKARBANATUZ
ELKARTEA

2018KO EKITALDIA

18. URTEKO TXOSTENA



elkarbanatuz

BULEGOAK:

Madariaga etorbidea, 69
48014 Bilbo

Madalena Jauregiberri, 2,
20080 Donostia

Tel.: 944 757 643 -
Faxa: 944 750 151-
info@elkarbanatuz.org
www.elkarbanatuz.org

ZENTROAK:

BAIKABA: Madariaga etorbidea, 69, etxabea,
48014 Bilbo

Tel.: 94 447 44 99- Faxa: 94 475 01 51-
baikaba@elkarbanatuz.org

HAZTEN: Madariaga etorbidea 1, 48014 Bilbo.

Tel.: 94 642 64 47- Faxa: 94 475 01 51-
hazten@elkarbanatuz.org

HIRANKA I: Blas de Otero 39 (sarrera: Arenatza
Kobaren kaletik), 48014 Bilbo.

Tel.: 94 476 41 36- Faxa: 94 475 01 51-
vidautonoma@elkarbanatuz.org

HIRANKA II: Madariaga etorbidea, 81 48014 Bilbo

Tel.: 94 476 41 36- Faxa: 94 475 01 51-
ocupacional@elkarbanatuz.org

EGOITZA-BALIABIDEAK

Bidean (Bilbo)
Ganeko (Bilbo)
Ondoan (Bilbo)
Garamendi (Bilbo)
San Adrian (Bilbo)



EDUKIAK

- 2.or. ... Eskerrak
- 3. or. ... Aurkezpena
- 4. or. ... Nor gara
- 6. or. ... 20. urteurrena
- 8. or. ... Egoitzetako esku-hartzearen arloa
- 10. or. ... Gizarteratze-arloa
- 12. or. ... Lan- eta lanbide-heziketaren arloa
- 14. or. ... Hautzaroaren, familiaren eta oinarrizko laguntzaren arloa
- 16. or. ... Nazioarteko lankidetzak
- 17. or. ... Gizarte-partaidetza
- 18. or. ... Jarraipen ekonomikoaren eta Administrazioaren arloa
- 20. or. ... Urteko kontuak
- 22. or. ... Lankidetzak-sareak
- 23. or. ... Komunikatzeko bideak
- 24. or. ... Lagundu

ESKERRAK

Esker ona adierazi nahi diegu 2018. urtean lagundu diguten erakunde publiko eta pribatu guztiei:

LA SALLE SAREA



La Salleko Gizarte eta Hezkuntza Ekintzen Sarea



Kristau Eskoletako Anaiak - FSC

ERAKUNDE PUBLIKOAK



Arrigorriagako Udala



Bilbako Udala.
Gizartekintza Saila



Bizkaiko Foru Aldundia



Gizarte Politiketako
Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritza Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila



Euskal Enplegu
Zerbitzua, Lanbide



Hezkuntza, Kultura eta
Kirola Ministerioa

ERAKUNDE PRIVATUAK



Bizkaiko Elikagaien Bankua



Fundación Antonio
Menchaca de la Bodega



Carmen Gandarías fundazioa



Fundación Víctor Tapia
y Dolores Sainz



Obra Social La Caixa



Caixa Proinfancia Programa



Incorpora Prestakuntza Guneak



UN AÑO DE CAMBIOS Y NUEVOS PROYECTOS

Aurten, 20. urteurrena ospatu dugu, eta ilusioz eta poztasunez beteta egin dugu, urte hauetan zehar egindako lanagatik, laguntza eman diegun pertsona guztiengatik, eta hori posible egin duzuen guztiengatik. Oso ospakizun bereziaz gozatu ahal izan dugu, eta memoria honetan bere lekutxoia eman diogu.

Orrialde hauetan, urteko ekintzarik esanguratsuenak aurkezten dizkizuegu, gizarte-oinarriaren, bazkideen eta laguntzaileen eta profesionalen lanari esker gauzatzen diren zerbitzu, programa eta proiektuen eduki, helburu eta emaitzen berri emateko. Gainera, urte honetan hainbat aldaketa izan dira gure zerbitzu eta zentroetan. Baina, horrez gain, erakunde publiko eta pribatuek urtez urte ematen diguten babes, lankidetzeta eta konfiantza ere eskertzen dugu. Gure konpromiso publiko eta gardenetik egiten dugun lankidetzeta da.

Konpromiso hori eta gizarte-beharrizanei emandako arreta oinarri hartuta, aurten aldaketak egin ditugu gizarte- eta hezkuntza-zerbitzuetan. Gizartearen eskaerei erantzunez, gazteei eskaintzen genien emantzipazio-zerbitzuarekin egindako lana amaitu dugu. Hemendik aurrera, gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonen, gazteen eta helduen autonomia-prozesuetan esku hartzen egingo dugu ahalegina. Gizarteratze-erlotik arreta psikosoziala eta bizitza autonomoa izateko laguntzea eskaintzen dugu.

Aldaketa horiek eragina izan dute, halaber, Lan- eta lanbide-heziketaren arloak eskaintzen duen arretan, laguntzera eta gaitasun pertsonalak eta laneratu aurrekoak eskuratzera bideratua. Lan Prestakuntzako Zerbitzuan lana topatzeko lanbide-trebakuntza eta ahalduntzea jorratzen jarraitu dugu, gaitasun teknikoak eta pertsonalak indartzuz. Aurten aldaketa handia izan dugu: instalazio berri batzuetara joan gara, zentroan prestatzen diren pertsonen beharrei erantzuneko dieten instalazio batzuetara.

Haurtzaroaren, familiaren eta oinarrizko laguntzaren arloan zaugarritasun-egoeran dauden haur, nerabe eta familiei arreta ematen jarraitu dugu. Gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzearen bidez, garapen pertsonala eta hezkuntza-arrakasta errazten duten tresnak eskuratzeko sustatzen dugu. Errealitate berrietara egokitzeko, ikaskuntzak bideratzeko modu berriak berrikusi eta horretan prestatu gara. La Salleren eskutik, nazioartean, hezkuntzaren arloan haurren pobrezia aurka borrokatzeko egin behar ditugun erronken berrikuspenean parte hartu dugu. Paradigmak eta sormena aldatzea eskatzen du, berrikuntza pedagogikoa egiteko, eta datozen urteetan ilusioz egingo diegu aurre erronka horiei.

Gure gizarteak dituen arazoak ikusarazteko ahalegina egin dugu, gizarte-ekimenaren bidez. Ahaleginak egin ditugu justuagoa eta kohesionatuagoa izan dadin lortzeko, tresna hauek erabiliz: parte-hartzea eta sentsibilizazioa, jardunaldiak, tailerrak, boluntariotza eta sare sozialak. Oso modu aktiboan lan egin dugu, bai Hirugarren Sektoreko Sareetan, bai La Salleko Hezkuntza Lanen Sarean.

Gardentasuna, kalitatea, eraginkortasuna eta erantzukizuna izan da urteko lanaren ezaugarria. Pertsona guztien eskubide-berdintasunetik 1.300 pertsonari baino gehiagori eman diegu arreta zuzenean, eta haiek guregan jarri dituzte beren ilusioak eta itxaropenak.

Eskerrik asko zuen bokazioarekin mundu bidezkoago eta solidarioago bat lortzeko borrokan jarraitzen duzuen guztioi.

Zuzendaritza Batzordea eta Zuzendaritza Taldea
2018ko abenduaren 31

NOR GARA

Elkarbanatuz irabazi asmorik gabeko elkarte bat da, eta La Salleko Ekintzen Sareko partaide da. Sare horrek, batez ere, hezkuntzaren eta esku-hartze sozialaren arloan egiten du lan.

Onura publikoko izendapena jaso du, eta partaidetza eta gizarte-aldaketa bultzatzen ditu.

Gizarte-oinarri sendoa dugu; izan ere, 74 bazkide eta laguntzaile inguru ditugu.

90 lagunek egin dute lan gurekin: 39 lagun, talde profesionalekoak dira (30 emakume eta 9 gizon), eta 51, boluntarioak (26 emakume eta 25 gizon).

Erakundearen organigrama:



2018. urtean, hauek osatu dute zuzendaritza-batzordea eta zuzendaritza-taldea:

ZUZENDARITZA BATZORDEA:

- Iker Izaola Viana (presidentea)
- Joseba Aranguren Pascual (presidenteordea)
- Asier Fernández Plaza (idazkaria)
- Estibaliz Viciola Samperio (diruzaina)
- Fernando Casas Gallego (batzordekidea)
- Itziar Muniozguren Colindres (batzordekidea)
- David Bernabé Pérez (batzordekidea)

ZUZENDARITZA TALDEA:

- Borja Doval (zuzendaria)
- Itxaso Bilbao (Hautzaroaren, familiaren eta oinarrizko laguntzaren arloaren arduraduna)
- Marta Isla (Jarraipen ekonomikoaren eta administrazioaren arloaren arduraduna)
- Iñigo Erice (Lan-eta lanbide-heziketaren arloaren arduraduna)
- María Carriedo (Egoitzetako esku-hartzearen arloaren arduraduna)

NOR GARA

Etorkizuneko urratsak

MISIOA

Elkarbanatuz elkartea, La Salleren hezkuntza-misioarekin bat, egoera ahulenean daudenei gizarte- eta hezkuntza-laguntza ematen egiten du lan, eta gizarte justuago eta kohesionatuago bat eraikitzeko, parte-hartzearen eta gizarte-eraginaren bidez.

IKUSPEGIA

Gizartean eta La Salleren misioan erreferentea izango den erakundea izatea, gizarte aldatzeko eta egoera ahulenean daudenei gizarte- eta hezkuntza-laguntza emateko lanean.

BALIOAK

Identitate lasallearra

Elkartasuna

Senidetasuna

Lankidetzeta


Eraginkortasuna


Erantzunkidetasuna

Berrikuntza

Gardentasuna

2018. urtean,





20. URTEURRENA

RIGOBERTA MENCHÚ, BAKEAREN NOBEL SARIA, ELKARBANATUZ ELKARTEAREN 20. URTEURRENEAN

“Hezkuntzako eginkizunik garrantzitsuena bizitzarako hezkuntza da”

“Nosotreada esaten diogu bestean pentsatu eta aldi berean niretzat ekiten badut, eta besteak beretzat ekin baina bestean pentsatuz egiten badu; hori da komunitaterako oinarria, herrirako oinarria”. Hori da gure gizartean mutilen eta nesken hezkuntzak izan behar duen erronka. Hain modu soil baina irmoan adierazi zuen Rigoberta Menchú Bakearen Nobel Sariak “Hautzaroaren eskubideak: etorkizuna eraikiz” jardunaldietan, Elkarbanatuz elkartearen hogeigarren urteurrena ospatzeko egindakoan. Jardunaldia joan den ekainaren 13an egin zen Bilbon eta gizarte-sektoreko eta La Salle Sareko 180 pertsona bildu ziren, jai-giro atseginean.

Rigoberta Menchú doktoreak eskubide indibidual eta kolektiboen ikuspegi bikoitzetik hitz egin zuen hautzaroari buruz, eta lurrarekiko, kulturarekiko eta komunitatearekiko errespetuan heztearen garrantzia azpimarratu zuen. Eta ondorioztatu zuen “hezkuntzako eginkizun garrantzitsuena... /bizitzarako hezkuntza da”. Hemendik aurrera heltzea dagokigula gogorarazi zigun, izan ere, “Gure arbaso maien arabera, 20 urterekin bizitzaren osotasunean gaude”. Aukera dugu “kontzientzia osoa sortzeko, gure pentsamendua eta jarduera eskubide indibidual eta kolektiboen aldeko borrokan oinarrituta egon dadin”. Era berean, gomendatu zigun hezkuntzak “kultura anitzeko eta naturatik hurbileko testuingurua errespetatu behar duela, naturarekin harremanetan, haren jakinduria eta indarra ezagutzeko eta sentitzeko, eta hautzaroan jenialtasuna eta sormena sustatu behar dugula”.

Jardunaldian, gainera, Juan Maria Aburto Bilboko alkateak hartu zuen parte, eta Elkarbanatuz elkarteak azken 20 urteetan egindako ibilbidea goraiatu zuen. Eta Isabel Sanchez Robles Gizarte Ekintzako foru-diputatuak bere egin zituen Rigoberta Menchu Fundazioaren kode etikoan jasotako hitzak: “Ez dago bakerik justiziarik gabe; ez dago justiziarik ekitaterik gabe; ez dago ekitaterik garapenik gabe; ez dago garapenik demokraziarik gabe; ez dago demokraziarik kulturen eta herrien nortasunik eta duintasunik gabe”.

Bestalde, Bilbo Sektoreko La Salle Hezkuntza Ekintzen Sarearen zuzendariak, Itziar Muniozgurenak, Elkarbanatuz elkarteak La Salle gizarte- eta hezkuntza-obren sarearen esparruan egindako lana nabarmendu zuen, eta adierazi zuen jardunaldia “haurren eskubideen defentsarako konpromisoaren aldarrikapena eta berritzea” zela “haiek, nahita, alde batera uzten dituztenen aurrean”.

Ekitaldian, Elkarbanatuz elkarteko Iker Izaola presidentek eta Borja Doval zuzendariak ere hartu zuten hitza. Bien parte-hartzearen ardatza haurren duintasunaren eta eskubideen errespetua eta hogeitau urte hauetan egindako ibilbidea eta ikaskuntza izan ziren.

Eta amaitzeko, jakina, Elkarbanatuzen esker ona azpimarratu nahi diegu 20 urte hauetako lana posible egin duten pertsona guztiei.

EGOITZETAKO ESKU-HARTZEAREN ARLOA

2018. urtea esanguratsua izan da aldaketari dagokionez. Egoitzetako esku-hartzearen arloa bilakatu eta aldatu egin da, eta Gizarteratze-arloa bihurtu. Aldaketa horren arrazoia izan da programak egokitu egin behar direla hirugarren sektore sozialean hautemandako premia berrietara, eta horren bidez hezkuntzako esku-hartzearen kalitatea hobetu nahi da.

2005ean, gazteen arretan eta emantzipazio-prozesuetan espezializatzen hasi ginen, eta, harrezkero, 445 gazteri baino gehiagori lagundu diegu. Haien autonomia-prozesuetan, % 94ko arrakasta lortu dugu: BHParen (banakako hezkuntza-programa) helburuak beteta amaitu dute.



22 egoitza-plaza
2018ko ekainera arte.

26 pertsonari eman
zaie arreta, eta
horietatik 5
wmakumeak dira.

Erabiltzaileen
aldaketekiko
zaurgarritasunean egin
dugu lan, aldaketa hain
traumatikoa izan ez
dadin.

10 gaztek proiektua
utzi zuten modu
autonomoan
bizitzeko.

Ekainean gizarteratze-prozesua amaitu duten
pertsonek % 85ek banakako arreta-planaren
helburuak beteta egin dute, eta % 15ek, berriz,
helburuak partzialki beteta.

5 erabiltzailek
programa berrietan
jarrailu dute, 2018ko
uztailetik aurrera.

Ondoan: 7 gazteri eman
zaie arreta, eta haiek
Elkarbanatuzekin eta
beste erakunde
batzuekin jarrailu dute
prozesua.

Bidanka egoitza-
baliabideen sarea
bilakatu eta Bizitza
autonomoko zerbitzu
berria bihurtuko da.

Gazteak emantzipatzeko egoitza-baliabideen sarea, Oinez (ekainaren 30era arte)

Programaren helburua gazteei emantzipatzen laguntzea da: gazteek beraiek parte hartzen dute beren heldutasun- eta autonomia-prozesuan.

Gaztea bere prozesuaren protagonista izango den laguntza integralaren bidez, pertsonak beren eguneroko bizitzako eskakizunei beren kasa eta arrakastaz aurre egin ahal izatea sustatzen dugu.

Programa horrek Bizkaiko Foru Aldundiaren gazteen emantzipaziorako programan parte hartzen du, eta, 2018ko ekainera arte, 10 plaza eskaini ditu, 2 etxebizitzatan banatuta, eta 11 gazteri eman zaie arreta.



Gizarteratzeko egoitza-programa, Bidanka (ekainaren 30era arte)

Erabiltzaileentzako aldi baterako egoitza-sarea da, eta gizarte- eta hezkuntza-zerbitzu pertsonala eta taldekoa eskaintzen die, gizarteratzeko prozesuak errazteko eta pertsonen autonomia bultzatzeko.

2018ko urtarriletik ekainera, programak 12 plaza izan ditu, 3 etxebizitzatan banatuta. 8 pertsona artatu ditugu, eta horietatik 5ek gizarteratzeko prozesuan jarraitu dute, proiektu berriak, 2018ko uztailetik aurrera.

Erabiltzaileek aldaketekiko duten zaurgarritasuna sakon landu da, programen arteko trantsizioa hain traumatikoa izan ez dadin.



PGazteak emantzipatzeko egoitza-programa, Ondoan (ekainaren 30era arte)

Programaren helburua da arreta integrala eskaintzea egoitza-ingurune batean, gazteei garapen afektibo, psikologiko, intelektual eta sozial egokia ahalbidetuko dien babes-espazio bat eskainiz..

Ondoan intentsitate handiko egoitza-baliabidea Bizkaiko Foru Aldundiko Helduz proiektuko parte da eta 7 plaza ditu. 2018an programa hau martxan egon den 6 hilabeteetan 7 gazte artatu ditugu, 4 neska eta 3 mutil; horietatik 3 emantzipazio-prozesuarekin jarraitzeko bideratu ziren lurralde historikoan gazteekin lan egiten duten beste erakunde batzuetara, eta gainerakoek emantzipazio-prozesua Bizkaiko gizarte-zerbitzuen saretik kanpo jarraitu zuten.



Bizitza autonomorako laguntzeko zerbitzua (uztailaren 1etik)

Bizitza autonomorako laguntzeko zerbitzuak ingurune komunitarioan autonomia eta parte-hartze handiagoa lortzeko laguntza-premiak dituzten pertsonari ematen die arreta. Parte hartzen duten pertsonak eguneko zerbitzuaren osagarri diren egoitza-baliabideetan, Hirankan, edo beren etxeetan bizi daitezke..

Zerbitzuak laguntza-, babes- eta orientazio-ekintza batzuk egiten ditu, erabiltzaile bakoitzaren premietara egokituta. Gizarteratze soziopertsonalerako prozesua erraztuko duten ohiturak eta jarrerak eskuratu eta horiei eustera bideratuta daude.

2018ko uztailetik abendura, 19 pertsonari eman zaie zerbitzua, eta horietatik 4 emakumeak izan dira; pertsona bakarrak amaitu du gizarteratzeko prozesua denbora-tarte labur horretan, helburu guztiak beteta.



Zerbituz psikosoziala (uztailaren 1etik)

Zerbitzu psikosozialak laguntza psikologikoa eta emozionala ematen die erabiltzaileei, banakako, familiako edo taldeko zenbait ekintza eta esku-hartzeren bidez. Prestazio horien helburua da pertsonari laguntzea zailtasun emozionaletan edo osasun mentalekin lotutako arazoetan, baldin eta zailtasun horiek haien gizarteratze soziopertsonaleko ibilbidea zailtzen ari badira.

Bizitza autonomorako laguntzeko zerbitzuekin, zerbitzu okupazionalarekin eta gizarte-laneko taldearekin koordinatuta, kasuen diagnostikoa eta ebaluazioa egiten da, bai eta esku-hartze psikosozialak ere erabiltzaileekin eta haien familiarekin, baldin eta familiarren esku-hartzea pertsonaren prozesurako eta egoerarako onuragarri izan badaiteke.

2018ko uztailetik aurrera 13 pertsona artatu dira zerbitzuan. Laguntza psikologikoko saioetan honako alderdi hauek lantzen dira, besteak beste: laguntza emozionala, autokontrola eta emozioen kudeaketa egokia, gatazkak konpontzeko trebetasunak, depresio- edo antsietate-kasuetan laguntzea, orientazioa eta laguntza osasun mentaleko arazoetan, eta abar, bai eta edozein arazo pertsonaletan, familiarretan edo sozialetan esku hartzea ere, pertsonak laguntza emozionala eskatzen badu.



LAN- ETA LANBIDE-HEZIKETAREN ARLOA

2018. urtea aldaketa-urtea izan da, gure arlokoak diren zerbitzu asko aldatu, bilakatu eta egokitu diren urtea.

Aldaketen artean, zerbitzu berrietako ekipo profesionalen diseinu berria aipatu behar da, bai eta lokal berri bat ireki eta egokitzea, Enplegurako Prestakuntza emateko.

Eta horren guztiaren helburua da laguntzen ditugun pertsona zaurgarrien autonomia- eta enplegarritasun-maila hobetzea, eta gure esku-hartzearen ardatza haien beharrianak izatea.



71 pertsonak egin dituzte praktikak lankide ditugun enpresetan.

Enplegurako Prestakuntzako 3.165 ordu prestakuntza-ordu eman dira, Hazten Enplegurako Prestakuntza Zentroan.

172 pertsonari eman zaie arreta, eta 47 kontratu lortu dira bitartekaritza- eta orientazio-zerbitzuan.

187 pertsonak hartu dute parte Hazten Enplegurako Prestakuntza Zentroan emandako prestakuntzan.

Lehen esperientzia Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak lagundutako Proiektu Bereziak izenekoekin (20 pertsona artatu dira, 315 prestakuntza-ordu eta 400 orientazio-ordu).

18 pertsona artatu dira Zerbitzu Okupazionalan, horietako 5 emakumeak.

Emakumeen % 28,5 eta egoera erregularrean dauden pertsonen % 48,5 artatu dira Gizareratze Zentroan.

Artatutako pertsonen % 100ek helburuak bete ditu edo betetzeko prozesuan dago.

HAZTEN Lanerako Prestakuntza Zentroa

Ikasleak profesionalki gaitzen dituzten prestakuntza-ekintzak ematen ditugu, eta haien ahalduntzea bultzatzen dugu enplegua bilatzeko eta lortzeko.

Prestakuntza-ekintza bakoitzaren gaitasun teknikoetan trebatzea indartzen dugu, zeharkako gaitasun pertsonalak garatuz eta laneratzeko prozesuan parte-hartzea eta ekimena sustatuz. Gure ikasleei gure ikastetxean emandako prestakuntza osatzeko, lantokiko prestakuntza eskaintzen dugu.

Zenbait profesionaltasun-ziurtagiri emateko akreditatuta gaude, bai eta lan-orientazioaren arloko prestakuntza-mota bat baino gehiago emateko ere. Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren Enplegurako Prestakuntzarako Lankidetzaren Zentroa da, eta "la Caixa" Gizarte Ekintzaren Programa Integratuaren Prestakuntza Guneen Sare kide gara.

Hiranka gizarteratze-zentroa (ekainaren 30era arte)

Hiranka gizarteratze-zentroa Bizkaiko Foru Aldundiarekin elkarlanean aritzen den eguneko zentro bat da. Gizarte-bazterketako egoeran dauden eta lurraldean finkatuta dauden helduei laguntzen die.

Egunero bertara joaten diren pertsonekin, modu autonomoan moldatzea eta zenbait testuingurutan gizarteratzea lortu nahi du. Horretarako, pertsona horiek alda daitezten eta gizarte-zailtasuneko egoera sortzen duten eta horri eusten dioten faktoreak murrizten ahalegintzen da.

Zerbitzu okupazionala (uztailaren 1etik)

Zerbitzuan artatutako pertsonak, gaitzeko eta (erre)habilitatzeko jardueretan parte hartuz, modu autonomoan jarduteko eta gizarteratzeko jarrera, ezagutza eta trebetasun baliagarriak eskuratzen eta garatzen joaten dira.

Profesionalen ekintzaren oinarria da hezkuntza-harreman bat ezartzea, diseinatutako laneratzeko-ibilbidean banakako laguntza emanez, laguntza anitzen bidez, pertsonekin esku-hartze integral bat egin ahal izateko, pixkanaka autonomia handiagoa izan dezaten eta gizarteratu eta gizarte-errotzea lortu.

Lan-orientabiderako bitartekaritza-zerbitzua

Enpresekiko harreman hurbil eta jarraituak lanpostu bat betetzeko dituzten beharrak zein diren jakiten laguntzen digu. Zerbitzu honek enplegu-bilaketa aktiboan dauden eta laneratzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonari ematen die arreta.

Banakako arretaren bidez, helburuak ezartzen ditugu eta pertsonak orientatzen ditugu enplegarritasuna hobetzen joan daitezten. Lan hori "la Caixa" Gizarte Ekintzaren Programa Integratuarekin elkarlanean egin genuen, Enplegurazko Ibilbide Pertsonalizatuak (IPHE) eginez.



HAURTZAROAREN, FAMILIAREN ETA OINARRIZKO LAGUNTZAREN ARLOA

Urte osoan zehar, erakundearen Plan Estrategikoari jarraituz, artatutako pertsonen autonomiara bideratutako neurrien identifikazioa eta diseinua landu ditugu bereziki. Helburua pertsonak beren prozesuetan parte har dezaten bultzatzea eta gure zerbitzua hobetzea da. Identifikazio horrek proiektu berriak diseinatzea erraztu du datozen urteetarako.

Halaber, barrutiko beste zerbitzu batzuekin koordinatzeko eta hitz egiteko bideak indartu ditugu, eta horietako batzuk handitu eta zentralizatu ditugu.

Era berean, gure sentsibilizazio-programa aldatu dugu, gizartean eragina duten ekintzak txertatuz, eta gure 20 urteko ibilbidea ederki asko ospatu dugu Rigoberta Menchú Nobel sariarekin bisitarekin.



58 adingabek (30 neskek eta 28 mutilek) hartu dute parte eskola-laguntzako eta zentro irekiko jardueretan.

69 neska, mutil eta nerabek (37 mutilek eta 32 neskek) Aste Santuko, Eguberrietako eta udako hiri-kolonietan parte hartu dute.

51 pertsonak (25 gizonek eta 26 emakumek) boluntario-ekintzak egin dituzte elkartean.

105 pertsonak jaso dituzte laguntzak 2018. urtean.

104 adin txikikok (Lehen Hezkuntzako 36 neskek eta 48 mutilek, eta Bigarren Hezkuntzako 13 neskek eta 7 mutilek) 63 familiakoak, gutxienez, parte hartzen dute Hogar Lerchundin (Tanger)-

18 pertsona artatu dira zerbitzu okupazionalen, horietako 5 emakumeak.

Erakundearen 151 pertsona berriri egin zaie abegi (90 gizon eta 61 emakume).

670 pertsonak baino gehiagok parte hartu dute gizarte-eragineko ekintzetan (370 emakume eta 300 gizon).

Haurtzaro eta Familia Zerbitzua

6 eta 17 urte bitarteko neska-mutilei eta haien familiei laguntzen diegu, hezkuntza-errefortzuaren, zentro irekiaren, hiri-udalekuen eta familia-tailerren bidez.

Jarduera horien bidez, banaka zein familia gisa, garatutako lan-planean proposatutako trebetasunak eta trebetasunak garatzen ditugu.

Aurten proiektuetan oinarritutako ikaskuntza ezartzen hasi gara. Hezkuntza metodologia horren bidez, Zerbitzuan parte hartzen duten neska-mutilek gaitasunak eskura ditzaten saiatzen gara, egunerokotasunean aurkitzen ditugun errealitateei erantzungo dieten proiektuak prestatuz.



Abegi-zerbitzua eta jarraipen sozioadministratiboa

Erakundeko gizarte-langileen taldeak kudeatzen du zerbitzua, eta erabiltzaile berriei abegi egitea du helburu.

Horretarako, pertsonaren egoerari buruzko informazioa biltzen da, hari buruzko diagnostiko bat egin eta planteatutako beharrei erantzun bat ematen zaio erakundeko zerbitzuen bidez.

Era berean, zerbitzuak orientazioa eta laguntza ematen du izapide sozioadministratiboak egiteko.



Laguntzak kudeatzeko zerbitzua

Behar-egoera handiena duten erakundeko pertsoneri laguntzen diegu.

Laguntza gizarteratze-prozesuaren osagarri da, eta pertsoneri eta familiei aukera ematen die oinarritzko premiak betetzeko eta gizarteratzeko ibilbideetan aurrera egiteko.

Onuradunek laguntza lortzeko zenbait betekizun bete behar dituzte eta behar bezala justifikatu emandako laguntzak.



Gizarte-eragineko programa

2018an, ikastetxeetan gizarte-eragineko jarduerekin jarraituko dugu, herritar kritikoak eta eraldatzaileak sustatzeko dugun helburuari irmo jarraituz.

Bizkaiko eta Gipuzkoako hainbat ikastetxetako 500 neska eta mutil baino gehiagorengana iristen gara, migrazio-prozesuen protagonista izan diren pertsonen laguntzarekin dinamizatutako topaketen bidez.

Eta helburu hori sendotzeko, "Migrazio-esperientziak" bideoa egin dugu. Bideo horretan zenbait migratzailek beren esperientzia kontatzen dute.



NAZIOARTEKO LANKIDETZA

Gure konpromisoarekin jarraituz, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren diru-laguntzarekin, bazterketa-arriskuan edo bazterketa-egoeran dauden familietako haurrak eta nerabeak artatzen dituen proiektu bati laguntzen jarraitu ahal izan dugu, bosgarren urtez jarraian, Tangerreko Aita Lerchundi Haurrentzako Etxean (ProClade Bética).

Etxeak eskola-materiala ematen die haurrei (liburuak, koadernoak, motxilak, errotuladoreak, etab.), material hori ez edukitzeak atzerapenik edo estigmatizaziorik eragin ez dezan. Era berean, eskola-errefortzuko eta aisialdiko eta denbora libreko jarduerak egiten dira.

Hezkuntza-taldeak adingabe bakoitzaren beharrak kontuan hartuta planifikatzen du ikasturteko jarduera, eta aldian-aldian ebaluatzen ditu aurrerapenak, zerbitzua haur edo nerabe bakoitzaren beharretara egokitzeko.

Motibazioa, kontzentrazioa eta ahalegina sustatzeko, jolas-dinamikak sartzen jarraitu dugu jolasekoak ez diren inguruneetan, bai eta adingabeentzat zailtasun gehien dituzten gaiak (matematika, arabiera eta frantsesa) berrikusteko ere.

Herritartasun globalean hezteko nazioarteko egunak ospatzeaz gain, genero-ikuspegia gizarte- eta hezkuntza-esku-hartzean txertatzean sakondu dugu, eta horretarako, hezkuntza afektibo-sexualari, adimen emozionalari, berdintasunari eta diskriminazioari, komunikazio-trebetasunei eta abarri buruzko tailerrak egin ditugu.

Etxe horretako langileek, beste erakunde batzuetako profesionalekin batera, haurren sexu-abusua eta -esplotazioa prebenitzeko eta hautemateko prestakuntzan parte hartu dute. Prestakuntza hori AIDA, Ayuda, Intercambio y Desarrollo, garapenerako gobernu kanpoko erakundeak eman du.

Zenbait topaketaren bidez, autoestimua, autozaintza eta ahalduntzea landu dira, etxe horretako haur eta nerabeen amen hazkunde pertsonala eta kolektiboa sustatuz.

Analfabetismoaren aurkako eskualde-politika integralaren baitan, Agence Nationale de Lutte Contre l'Analphabétisme – ANLCA (Analfabetismoaren aurkako Agentzia Nazionala) erakundeak kudeatutako programa bat gauzatu da, eta etxe horretako 12 emakumek hartu dute parte.

Halaber, emakume batzuek garbiketari buruzko prestakuntzan parte hartu dute, enplegarritasuna hobetzeko, L'Union d'Action Féministekin egindako hitzarmenaren bidez.



GIZARTE-PARTAIDETZA

JARDUNALDIETAKO PARTAIDETZA

- "Segurtasuna eta autonomia" jardunaldia. Bilbo. Bizkaiko Foru Aldundia.
- "Erronka berriak eta inklusio-erantzunak" jardunaldia. Bilbo. Bizkaiko Foru Aldundia.
- Gizartegune jardunaldiak "Inklusioa sustatzeko gizarte-zerbitzuetan egiteko dagoena" Bilbo. Bizkaiko Foru Aldundia.
- "III AMEL" biltzarra, ARLEP barrutia, La Salle. Liria (Valencia).
- Lagungo fundazioaren 25. urteurrenaren ospakizun-ekintza. Bilbo.
- Hazbideren adin txikikoei arreta emateko zentro berriaren inaugurazioa.
- "Konpetentziak, laguntasuna eta enplegarritasuna" jardunaldiak. Bilbo. Gizatea
- "Genero-indarkeria gazte eta nerabeen artean: indarkeria ezabatzeko prebentzioa, arreta eta sentsibilizazioa" jardunaldiak. Gizartegune. Bilbo. Bizkaiko Foru Aldundia.
- "Integración de políticas para la lucha contra la pobreza y la exclusión social" mintegia eta urteko biltzarra. Murtzia. EAPN.
- GSEFen biltzarra. Ekonomia Solidarioa, Bilbo. Gizarte Ekonomiako Munduko Foroa.
- Prestakuntza: "Gizarte-bazterketarako esku hartzeen ereduak" Donostia EHU.
- "Nola egokitu datuak babesteko Europako araudi berrira" jardunaldia Bilbo. Hirugarren Sektoreko Behatokia.
- "Derechos, Ciudadanía y Educación: abriendo las fronteras lasalianas del siglo XXI" Mintegia. Roma. La Salle.
- Elizako gizarte-entitateen urteko VIII. topaketa. Bilbo.
- "Hirugarren sektore sozialaren eguna" Jardunaldia. Donostia. Sareen Sarea.
- "Genero indarkeriaren biktima diren emakumeen eta haurren arretarako programa" prestakuntza. Bilbo. La Caixa Gizarte Ekintza.
- Topaketa, parte-hartzea: EAPN. ASSEDIL biltzarra, Grecia. La Salle.
- "Caixa Proinfancia programaren 10. urteurrena" Bilbo. La Caixa.

- Prentsaurrekoa eta manifestuaren aurkezpena: "Pobrezia eta bazterketarik gabeko herri baten alde" Bilbo. EAPN Euskadi.
- "Formación para entidades coordinadoras del programa CaixaProinfancia" jardunaldiak. Bartzelona. Obra social La Caixa.
- "Euskadiko Familia eta Haurtzaroaren inbertsiorako estrategia" jardunaldiak. Bilbo. Eusko Jaurlaritza

PARTE-HARTZE KOMUNITARIOA ETA SAREKO LANTALDEAK

- Harresiak Apurtuzen biltzarrak eta lurralde-batzordeak, Beste Biren kontzentrazioak, Bilboko Udaleko etxerik gabeko pertsonen batzordea, Bilboko Udaleko haurtzaroa eta familia batzordea (bietan Gizardatzen ordezkaritzan).
- Pobreziaren nazioarteko egunean parte hartzea. EAPN. Ekainen enplegurako prestakuntzako taldea, enplegurako prestakuntza ematen dugun
- Gizartean Esku-hartzeko Hirugarren Sektoreko erakundeekin sarean lana. "Talde eragileko" kide gara.
- Albada taldea, LH eta enplegurako prestakuntza ematen duten La Salle sareko obrek osatutakoa (Sector Bilbao).
- "Enplegu inklusiboa" lantaldea. "Enplegu inklusiboko estrategia" dokumentua lantzen ari gara, sareko erakundeekin batera. REAS
- "Gizarte-auditoria" lantaldea. REAS Euskadi sareko kide garen erakundeei eskatzen zaizkien datu-sorta dinamizatzen dugu, eta Euskadin egiten duguna estatuan egiten denarekin baterateko lana.
- Harresiak Apurtuzeko gazteen lantaldea.
- EAPNko Emakumea eta gizarte-bazterkeria batzordea
- EAPNko Parte-hartze batzordea
- EAPNko Haurtzaroa eta familia batzordea

- ORAIN taldea. Taldearen helburua da erreferentzia-talde osasungarria izatea hezkuntza emozionaleko eta bizi-estilo osasungarrietako prozesuetan lan egiteko. Taldea hilean behin biltzen da Deustuko zentro zibikoan.

BOLUNTARIOTZA

Elkarbanatuzentzat funtsezkoa da boluntarioek erakundeko proiektuetan parte hartzea, elkartasunaren adierazle moduan eta gizartean parte hartzeko eredu moduan, komunitatearekin lotuta lan eginez.

Ekintza aipagarrienetako bat "Diversidad, Cultura y Educación: hacia una Educación Intercultural" izeneko prestakuntza da. Andrea Ruiz Balzolak dinamizatu zuen eta 4 orduko iraupena izan zuen.

Prestakuntza-ekintza honek, Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutakoak, oso balorazio onak jaso ditu, boluntario guztiek beren lana kultura-nortasun desberdineko lekuetako neska, mutil, nerabe, familia eta pertsonekin lan egiten dutelako. Kultura arteko hezkuntza, kultura arteko harremanak errazteko modu gisa ulertuta, eta nortasunak aintzat hartu eta errespetatzeko modu gisa.

Urtean zehar, boluntarioek parte hartu dute hezkuntza indartzeko, aisiako eta astialdiko jardueretan, hiri-udalekuetan, helduen alfabetatzean, itzulpengintzan eta administrazio-lanetan. Eskerrik asko zuen laguntzagatik, motibazioagatik eta konpromisoagatik.

JARRAIPEN EKONOMIKOAREN ETA ADMINISTRAZIOAREN ARLOA

Jarraipen ekonomikoaren zerbitzua

Kudeaketa-estilo etiko eta arduratsu baten alde egiten dugu lan, bai eta egoera ekonomiko eta finantzario orekatu baten alde ere.

Administrazio-zerbitzua

Gure administrazio-kudeaketari esker, eraginkortasunez antolatzen ditugu baliabide materialak, bai eta elkartearen kanpoko zerbitzuen baliabideak ere, elkartearen misioarekin bat datozenak.

Halaber, administrazio-zerbitzuak hau egiten du:

- Kontsumo arduratsua eta baliabide materialak aurreztu daitezela sustatzen eta bultzatzen du; horretarako, ingurumen-irizpideak hartzen ditu kontuan.
- Harreman eraginkorra, horizontala eta lankidetzazkoa du hornitzaileekin.

Kalitate-programa

Arloa orobat arduratzen da elkartearen kalitate-programa kudeatzeaz.


2018an, Elkartearen kalitate-programa garatzen jarraitu dugu. Erakundearen kudeaketa-zikloa homologatutako kalitate-estandarren arabera finkatzen jarraitu dugu, baina gure misioari eta nortasun-ezaugarriei leial izateko konpromisoarekin.

Pertsonen begira jardutea eta etengabeko hobekuntza direla eta, Prozesuen Mapa berrikusi behar izan dugu. Horren ondorioz, garapen progresiboko 9 kalitate-prozesu identifikatu ditugu.



Benetako kostuaren finantzaketa-iturriak:

Jarraian, 2018an izan diren finantzaketa-iturriak eta "kostu errealaren" ehunekoa zehazten dira:



Kontu-ikuskapenak:

Elkarbanatuz elkarteak kontu-ikuskapenak egiten ditu, aldiari-aldiari egin ere, zenbait alderdi ebaluatzeko; hain zuzen ere, gizarte-eraginarekin, kontabilitate-kudeaketarekin eta elkartearen kudeaketan balio jakin batzuk integraztearekin lotutako alderdiak ebaluatzeko.

Ebaluazio-mekanismo horiek bide ematen dute etengabe hobetzeko prozesuak garatzeko eta ezartzeko; eta, horretaz gainera, tresna apartak dira elkarte-proiektua serioa eta sendoa dela bermatzeko.

- **Kontu-ikuskapen ekonomikoa:**

A-Zeta aholkulariek urteko kontuen ikuskapena egin dute, eta egiaztatu dute kontu horiek zehatz-mehatz adierazten dutela elkartearen finantza-egoera.

- **Kontu-ikuskapen soziala:**

Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sareak (REAS) eginiko kontu-ikuskapen sozialari esker, 2018an, gure elkartearen eraginkortasun soziala eta helburuekiko jokabide etikoa ebaluatu ditugu, gizarteari eta elkartasunari begira lortutako emaitza hobetzeko asmoz.

- **Batzorde etikoaren txostena:**

Elkarbanatuz elkarteko Etika Batzordeak txosten bat egiten du urtero, eta, txosten horretan, Etika Kodea zenbateraino sartzen den elkartean ebaluatzen.



URTEKO KONTUAK

Hona hemen elkartearen 2018ko ekitaldiko urteko kontuak, indarrean dauden kontabilitate-printzipio eta -aruetan oinarrituta eginak. Bilakaera hobeto ulertzeko, 2017ko eta 2018ko ekitaldietako zifrak erakutsiko ditugu.

EGOERA-BALANTZEA 2018ko abenduaren 31n (eurotan emanda)

AKTIBOA	2018	2017
A) AKTIBO EZ ARRUNTA	342.575,13	249.762,53
I. IBILGETU UKIEZINA	0,00	0,00
Apikazio informatikoak	0,00	0,00
Ibilgetu ukiezinaren amortizazio metatua	0,00	0,00
III. IBILGETU MATERIALA	325.020,33	235.342,20
Eraikuntzak	218.811,89	211.711,89
Makineria	8.667,25	6.115,37
Bestelako instalazioak	12.497,60	12.497,60
Altzariak	76.186,59	66.975,36
Informazio-prozesuetarako ekipoa	52.619,24	50.995,02
Beste ibilgetu material batzuk	2.328,79	2.154,79
Eraikinetako inbertsioak	137.498,37	43.229,65
Ibilgetu materialaren amortizazio metatua	-183.589,40	-158.337,48
VI. EPE LUZERAKO FINANTZA-INBERTSIOAK	17.554,80	14.420,33
Epe luzerako finantza-inbertsioak	6.438,00	6.438,00
Epe luzerako fidantzak	11.116,80	7.982,33
B) AKTIBO ARRUNTA	301.908,28	263.084,93
III. JARDUERAREN ERABILTZAILEAK ETA ZORDUNAK	21.011,91	25.121,33
Jardueraren beraren erabiltzaileak	21.011,91	25.121,33
IV. MERKATARITZA-ZORDUNAK ETA KOBRATU BEHARREKO BESTE KONTUAK	252.610,33	184.020,84
Administrazio Publikoak	252.610,33	184.020,84
VII. EPE LABURRERAKO PERIODIFIKATZEAK	1.923,96	1.902,24
Aurrez ordaindutako gastuak	1.923,96	1.902,24
VIII. EFEKTIBOA ETA BESTE AKTIBO LIKIDO BALIOKIDE BATZUK	26.362,08	52.040,52
Kutxak	3.022,28	3.330,12
Bankuak eta Kreditu Erakundeak	23.339,80	48.710,40
AKTIBOA, GUZTIRA	644.483,41	512.847,46

ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2.018,00	2.017,00
A) ONDARE GARBIA	150.736,10	143.818,96
A-1) FUNTS PROPIOAK	149.434,66	143.818,96
II. ERRESERBAK	4.240,00	0,00
Borondatezko erreserbak	4.240,00	0,00
III. AURREKO EKITALDIETAKO SOBERAKINAK	143.818,96	127.932,49
Soberakina	143.818,96	127.932,49
IV. EKITALDIAREN SOBERAKINA	1.375,70	15.886,47
Ekitaldiaren emaitza	1.375,70	15.886,47
A-2) DIRULAGUNTZAK, DOHAINTZAK ETA LEGATUAK:	1.301,44	
Bestelako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak	1.301,44	
B) PASIBO EZ ARRUNTA	185.545,06	202.870,99
II. EPE LUZERAKO ZORRAK	185.545,06	202.870,99
1. Kreditu-erakundeekiko zorrak	151.511,10	168.837,03
3. Epe luzerako beste zor batzuk	34.033,96	34.033,96
C) PASIBO ARRUNTA	308.202,25	166.157,51
III. EPE LABURRERAKO ZORRAK	217.325,93	83.153,65
1. Kreditu-erakundeekiko zorrak	157.325,93	83.153,65
3. Epe laburrerako beste zor batzuk	60.000,00	0,00
VI. HARTZEKODUN KOMERTZIALAK ETA ORDAINTZEKO BESTE KONTU BATZUK	69.447,75	58.184,72
1. Hornitzaileak	6.602,92	5.094,06
2. Beste hartzekodun batzuk	62.844,83	53.090,66
-Ordaindu gabeko ordainsariak	251,20	0,00
-Herri-ogasuna, hartzekoduna abikipenengatik	35.553,37	30.205,49
-Gizarte-segurantzaren erakundeak, hartzekodunak	27.040,26	22.885,17
VII. EPE LABURRERAKO PERIODIFIKATZEAK	21.428,57	24.819,14
Sarrera aurreratuak	21.428,57	24.819,14
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA	644.483,41	512.847,46

GALDU-IRABAZIEN KONTUA 2018ko abenduaren 31n (eurotan emanda)

	2018	2017
A) EKITALDIAREN SOBERAKINA		
1. Erakundearen diru-sarrerak jarduera propioetatik	554.581,12	476.313,58
a) Bazkide eta afiliatuen kuotak	47.115,00	52.651,04
b) Erabiltzaileen ekarpenak	8.984,86	25.220,62
c) Promozioen, babesleen eta lankidetzen diru-sarrerak	15.101,20	15.521,20
c) Ekitaldiaren emaitzari egotzitako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak	483.380,06	382.920,72
2. Salmentak eta jardueraren beste ohiko diru-sarrera batzuk	929.030,38	914.467,81
3. Laguntzen eta beste batzuen ondoriozko gastuak	-14.114,95	-14.402,30
a) Dirulaguntzak	-14.114,95	-14.402,30
4. Izakinen aldatketak		
5. Elkarrekin bere aktiborako egindako lanak		
6. Hornikuntzak		
7. Jardueraren beste diru-sarrera batzuk	1,03	660,66
8. Langile-gastuak	-1.119.595,10	-1.056.533,02
9. Jardueraren beste gastu batzuk	-319.052,19	-282.363,74
10. Ibilgetuaren amortizazioa	-25.650,18	-18.831,33
11. Ekitaldi emaitzara transferitutako kapitaleko dirulaguntzak	26,56	
13. Hondatzea eta ibilgetuak besterentzearen emaitza		-41,94
A-1) JARDUERA PROPIOAREN SOBERAKINA	5.226,67	19.269,72
14. Finantza-sarrerak	4,10	
15. Finantza-gastuak	-3.855,07	-3.383,25
17. Kanbio-diferentziak		
A-2) FINANTZA-SOBERAKINA	-3.850,97	-3.383,25
A-3) ZERGA AURREKO SOBERAKINA	1.375,70	15.886,47
18. Etekinen gaineko zerga	0,00	0,00
A-4) ONDARE GARBIAREN ALDAKETA, EKITALDIAREN SOBERAKINEAN JASOA	0,00	0,00
B) ONDARE GARBIARI ZUZENEAN EGOTZITAKO SARRERAK ETA GASTUAK		
1. Jasotako dirulaguntza publikoak	240.770,14	160.466,20
2. Jasotako dohaintzak eta legatuak	238.375,38	215.712,30
B-1) ONDARE GARBIAREN ALDAKETA ONDARE GARBIAN ZUZENEAN AITORTUTAKO SARRERA ETA GASTUAK	479.145,52	376.178,50
C) EKITALDIKO SOBERAKINEAN BERSAILKATUAK		
1. Jasotako dirulaguntza publikoak	-240.770,14	-160.466,20
2. Jasotako diru-laguntza pribatuak	-238.375,38	-215.712,30
C-1) ONDARE GARBIAREN ALDAKETA ONDARE EKITALDIKO SOBERAKINEAN BERSAILKATZEAGATIK	-479.145,52	-376.178,50
D) ONDARE GARBIAREN ALDAKETA ZUZENEAN ONDARE GARBIARI EGOTZITAKO SARRERA ETA GASTUENGATIK	0,00	0,00
E) IRIZPIDE-ALDAKETENGATIK EGINDAKO DOIKUNTZAK		
F) ERRORENGATIKO DOIKUNTZAK		
H) BESTE ALDAKETA BATZUK		
I) EKITALDIKO ONDARE GARBIKO ALDAKETA EMAITZA, GUZTIRA	1.375,70	15.886,47

PROIEKTUEN KOSTU ERREALA ETA GASTU OROKORRAK

Elkarrearen kostu ekonomikoa "kostu erreal" baino pixka bat baxuagoa da, honako arrazoi hauek direla eta:

- Bi etxebizitzaren lagapena doan, gizartearen arloko proiektuak egiteko.
- Bizkaiko Elikagai Bankuak emandako elikagaiak.
- Pertsonala, boluntarioek egindako lan eskuzabalaren ondorioz.

Boluntarioei eta diruzkoak ez diren ekarpenei dagozkien kostuen gorakada:

Errentamenduak eta kanonak (1)	21.600,00
Janaria, garbiketa-tresnak eta bestelakoak (2)	113,52
Langile-gastuak (3)	2.126,30
GUZTIRA	23.839,82

(1) Bi etxeen hileko alokairua, gutxi gorabehera, 1.800 € litzateke.

(2) 240 kilo elikagai jaso dira Bizkaiko Elikagaien Bankutik; jasotakoaren balioa 113,52 € inguru da.

(3) 110 ordu urtean, gutxi gorabehera 2.126,30 euroren balioa dutenak.

LANKIDETZA-SAREAK

Sarean lan egiten dugu, hirugarren sektoreko entitateen elkarlana sustatuz eta helburu komunak lortzeko informazio-fluxu aberasgarria bultzatuz. Horregatik, parte hartzen jarraitzen dugu kide garen sare hauen zuzendaritza-batzordeetan, lantaldeetan, batzarretan, kanpainetan, ekimenetan eta abarretan:



La Salleko Gizarte eta Hezkuntza Ekintzen Sarea



Pobreziaren eta Gizarte Bazterkeriaren aurkako Europako Sarea



Bizkaiko Gizarte Ekimeneko eta Esku Hartzeko Entitateen Elkarte



Danok Bizilekua Izatearen eta Aterpe bakoien aldeko Plataforma



Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea



Ekain Sarea - Euskadiko Gizarteratzearen aldeko Sareak



Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea



Proiektuak eta laguntzako etxebizitzak dituzten entitateen federazioa



Zero Pobrezia Kanpaina



Fiare Proiektuari Laguntzeko Euskal Sarea




KOMUNIKATZEKO BIDEAK

Webguneak:



www.elkarbanatuz.org



YHalaber, egin bat gurekin gizarte-mobilizazioaren bidez:

Jarrai iezaguzu sare sozialetan:



Facebook
<http://www.facebook.com/elkarbanatuz>




Twitter
[@elkarbanatuz](https://twitter.com/elkarbanatuz)



Aldizkari elektronikoa



Ohar-taula digitala bazkideentzat



Youtube
<http://www.youtube.com/user/elkarbanatuz>



La Salle ARLEP



LAGUNDU

BOLUNTARIOTZA

Erakundeari laguntzeko modu asko daude, eta horietako bat boluntario izatea da. Elkarbanatuzen hainbat proiektutan lagun dezakezu eta, besteak beste, hezkuntza-ekintzetan, aisiakoetan, bizikidetzakoetan, laguntza pertsonalekoetan eta enplegurako prestakuntzakoetan babes gaitzakezu.

EGIN EKARPEN BAT:

- **Dohaintza bat:**

Erabiltzeko egoera onean dauden tresnak, ekipoak, altzariak eta bestelako bitartekoak behar ditugu gure jarduerak egiteko. Soberan duzun horixe izan daiteke geuk behar duguna, proiekturen bat aurrera eramateko. Hala den jakiteko, mesedez, jo ezazu guregana.

- **Etxebizitza edo lokal baten erabilera uztea:**

Ba al duzu hutsik dagoen lokal, bulego edo etxebizitzaren bat? Haren erabilera uzten badiguzu, laguntza itzela emango diguzu gure misioa betetzeko, erabiltzaile gehiagori arreta emateko aukera emango baitiguzu.

- **Gure proiektuetarako laguntza ekonomikoa:**

Aldiroko ekarpen ekonomikoak egiten dizkigute gure laguntzaileetako batzuek, eta, ekarpen horien bidez, premiazkoa duten egonkortasuna ematen diete gure proiektuei. Ekarpen ekonomiko puntualak egitea da gure jarduerari laguntzeko beste aukera bat.

Interesatuak honela jaso dezakete informazioa

Web-orriaren eta harremanetarako formularioen bidez: www.elkarbanatuz.org

E-posta erabilita: voluntariado@elkarbanatuz.org eta/edo colabora@elkarbanatuz.org

Telefonoz: **94 475 76 13**



EDIFICIO MADARIAGA 1

